

BALIO PROPOSAMENA:

2010eko urriaren 21ean, Europako Batzordeak Gasteiz 2012ko Europako Hiriburu Berde izendatu zuen. Gu Gasteizko herritarrak garenez, lorpen hori mantendu nahi dugu; horretarako, kaleetan topatzen dugun zabor kantitatea murriztu nahi dugu eta hiri berde bat lortu nahi dugu. Bestalde, Zadorra ibaiaren, gure hiria girotzen duen ibaiaren, inguruan pilatzen den zikinkeria eta zabor kantitatea ikusita, natura babesteko mugimendu sozial bat sortu nahi dugu.

Enpresa bezala, ingurumenaren arazoei buruzko kontzientzia zabaltzea dugu helburu nagusi. Urte hauetan, kutsadura izugarria sortu da, eta GreenGroupeko taldekideak, azken urteotako egoera ikusita, ingurumenari nola lagundu pentsatzen aritu gara. Gure lurra zaintzeko eta ingurumeneko kutsadura saihestu ahal izateko, hainbat ekintza eta zerbitzu eskainiko ditugu. Horien artean, mugikorretarako aplikazio bat sortu dugu, herritarrek zaborra botatzerakoan erraztasuna izan dezaten. Aplikazio honek, Gasteizen dauden zakarrontziak seinalatuko ditu, kalean botatzen den zabor kopurua zakarrontzietara botatzea errazago egiteko.

Gure ideia garatzeko, NBEko 17 helburu jasangarriak kontuan izan ditugu. Zehazki, *Klimaren Aldeko Ekintza* eta *Lehorreko Ekosistemen Bizitza* helburuetan zentratu gara.

Gainera, *Klimaren Aldeko Ekintza* helburuaren barnean dagoen puntu bat betetzen du gure proiektuak: “13.3 Giza eta erakundeek hezkuntza, sentsibilizazioa eta gaitasuna hobetzea, klima-aldaketa arintzeko, horretara egokitzeko, ondorioak murrizteko eta alerta goiztiarrari dagokienez”. Gure proiektuaren ideiarik nagusia herritarrak ingurumenarekin eta naturarekin gertatzen ari diren katastrofeei buruz sentsibilizatzea eta katastrofe horien kontra lanean ekitea da.



Gure aplikazioak inguruan, hau da, Gasteiz osoan, gertuen dauden zakarrontziak plano batean adierazten ditu, kalean botatzen den zaborra ahal den neurrian murrizteko. Gainera, aplikazioan lehiaketa bat antolatuko dugu hilero. Lehiaketa horretan parte hartzea erraza izango da: egin behar den gauza bakarra 20 segundoko bideo bat grabatzea da, aplikazioan adierazten diren zakarrontzietan zaborra botatzen dela ziurtatuko duena. Hilabetea bukatzen denean, parte hartu duten pertsonen artean zabor gehien bota duenak irabaziko du. Sariak gure webgunean dauden artikuluak erosteko deskontuak edo opariak izango dira.

Bestetik, hitzaldiak eta tailerrak eskeinitzeko ditugu Gasteizko eskola publiko zein pribatuetan. Zerbitzu honen helburua, ikasleak egoerarekin sentsibilizatzea da. Horretaz gain, ingurumena eta naturarekin erlazionaturako jardunbide egokien ereduak landuko ditugu beraiekin. Eskolek nahi izanez gero, gure hitzaldiak modu

jarraitu eta progresibo batean eskeiniko ditugu urtez urte, ingurumen-hezkuntza eraginkorragoa izan dadin.

Hezkuntza zentroetan eskeintzen ditugun hitzaldi hauen antzekoak ere gure youtubeko kanaleak topatu daitezke, gure ekintzaren ondoriak, biztanleria osoari iritsi daitezten.

Azkenik, npresen jarduerak ingumenean dituzten kalteak aztertuta, nabaritu dugu ehungintzan ari diren lantegiek zabor asko eta kutsadura handia sortzen dutela urtero, eta guk arazo hori hobetzeko nahia sentitzen dugu. Horretarako, ingurumena zaintzeko, gure produktuak egiteko, material birziklatua erabiliko dugu, adibidez, kalamu ekologikoa, tindu iraunkorrak, PET birziklatua, kotoi organikoa edo tentzela.

